

# Bero-beroan

## Hondartzako gogoetak (II)

EUSKARATIK gaztelaniarako jauzia hasiko duen haurraren fenomenoaz hitz egitekotan geratu nintzen aurreko zenbakian. Hona neskatilaren istorioa.

Aitak eta amak beti euskaraz egin diote hondartzan, ihes egingako esaldiren bat salbu. Umeak euskaraz erantzun die. Aiton-amonak haurrarekin duten harremana korapilatsuagoa da. Uste nuen amonak euskaraz egiten zuela eta aitonak ez, gero konturatu nintzen aitonak ere haurrari euskaraz egiten ziola. Baina bai aitona eta bai amona erdaldun imajinatzea ezin dut saihestu; sonbrilla azpiko solasaldietan, heldue-

kin, beti gaztelaniaz egiten dutelako. Total, aiton-amonak euskaraz egin diote orain arte, aita-amek ere bai. Baina, hara aurtengo udako



bigarren ezustekoak! –lehenengo aurreko gogoetan azaldu nuen–. Toallan etzanda nago, ez dut ikusten, baina entzun egiten dut. “Ui... nik uste dudana ama-alabak badira

horiek... erdaraz ari dira...”. Ezin begiratu gabe egon eta lepoa giratu dut. Ai ama! (espezial datorkit esaera). Amak erdaraz eta euskaraz egiten dio eta neskatila esanekoak ikasi du euskaraz egiten dionean hala erantzuten eta gaztelaniaz egiten dionean gaztelaniaz. Metamorfosiaren lehen alea da. Atzeramartxarrik gabeko prozesua dirudi, baina ezin dizuet gehiago aurreratu hondartzara-garaia amaitu egin baitzait.

Ondo bidez eta eguraldia lagun, ikerlaria eta ikerketa sozio-linguistikokoaren lagina hondartzan elkartuko gara berriz datorren udan eta jarraipena eskainiko dizuet. Gainera, gurasoek karamelo goxoa jarri didate eskura: bigarren alabatxoa izan dute.

ONINTZA IRURETA



Honelako albisteak egunero irakurtzeko, jaso hari@DOAN e-postaz: [www.argia.com/harpidetza\\_haria.php](http://www.argia.com/harpidetza_haria.php)

## BAHEA

[Miquel Strubellek gipuzkoacusara.net-en](http://MiquelStrubellek.gipuzkoacusara.net-en): “Hizkuntza-normalizazio teknikeri galiziarrek orain egun gutxi elkartu ziren Carballon (A Coruña). Euren hizkuntza Galiziako gizartean modu normalizatuan ikusteko helburuari mesede egingo dion hitzaldia nola egituratu behar den izan dute hizpide.

Ikastaroan parte hartu nuen, eta katalana izanik, giroa duela hamar-kada batzuetakoa zela iruditu zitzaidan. Aurre egin behar dieten aurreiritzi eta auto-gorroto mailak guztiz zaharkituta daude.

Gainera, badirudi guztiz neoliberal den diskurtsoa onartu egin dutela Galizian, izan ere, gizartearen sektore batek –hain zuzen ere, aurreiritzi horiek lehen pertsona jasaten dituenak, eta kasu batzuetan, milaka urteko hizkuntza alde batera uzten duenak– hizkuntza aukeratzeko ustezko ‘askatasuna’ defendatzen du. Hala ere, galiziarren aurkako txertoa hartzeko saiakera dirudi, hizkuntza ofizial bat ez ezagutzea ‘eskubidea’ bailitzan”.

## TALAIAN

### Abeltzainen errebolta

Euskal Herriko, Kantauriar itsasaldeko eta Europako ganaduzaleak nazkatuta daude bizi duten muturreko egoeraz eta kalera atera dira. Protagonista izan dira joan den astean eta hala izango dira aste honetan ere, mobilizazioak eta baita greba ere egingo baitute. Hego Euskal Herriko abeltzainek, EHNERen eskutik, joan den astelehenean Santanderren egindako manifestazioan hartu dute parte. Ipar Euskal Herriko ganaduzaleek, ELBren eskutik, joan den astean Bordeleko manifestazioan izan ziren. Irailaren 7an, Europar Batasuneko Nekazaritzako ministroen bilera probestuz, Europa mailako greba egin zuten abeltzainek. Greba, batez ere, Frantziako Estatuak sustatu zuen.

Grebaren zein mobilizazioen arrazoiak berberak dira: egunez egun okerrera egiten duen egoerak eta ganaduzaleak ustiategiak ixten ari dira. Euskal Herrian gaur egun 800 ustiategi daude. Duela hogeitau urte 13.000 ziren. EHNEK jakinarazi du ustiategi askoz gehiago itxiko direla udazkenean, baldin eta politika aldaketa bati esker esne litroko hamaika zentimoen galera berdintzen ez bada. ENBAk eskatu dio Eusko Jaurlaritzari esne sektorearentzako laguntzak gehitzea eta aurten bertan bideratzea. Europako abeltzainek eskatzen dute Europar Batasuneko Estatuak gelditu dezatela sektorean ezarria duten politika eta abeltzainek jasotzen dituzten prezioak berma ditzatela. Esnearen prezioak behera egitea salatzearaz gain, ganaduzale europarrek Bruselak merkatua erregulatzen duten esne kuota ezabatzearen egindako planak ukatzen dituzte. Beste behin ere multinazional handiek ustiategi txikiak mehatxatzen dituzte. Europar Batasunaren eskutan dago milaka ganadu ustiategi ixtea ala ez.

Juan Mari Arregi

## Abertzaletasuna baztertzeiko ituna Nafarroan

**UPN-K** ere legez kanpoko ezker abertzalearen jazarpena areagotuko du datozen asteetan eta horretarako enegarren ituna proposatuko die PP, CDN eta PSNri. NaBai eta Ezker Batua kanpo utziko ditu –hauen zorionerako–, horrekin zer itun mota den ere argi adieraziz. Batasunaren ingurukoak, itunetik kanpo bakarrik ez, ahal bada espetxera. Ez da berria Miguel Sanz eta UPNkoen errepresiorako joera, arrazoi askogatik, ugari dira Nafarroan festak direla, gaztetxeen edo beste hainbat herri ekimenen aurkako polizi oldartzeak. Polizi presentzia itogarria –poliziaz inguratutako manifestazioen ohiko irudi horiek– izatera ere ohitu da parte hartze abertzaleak garrantzi handia izan dezakeen mobilizazioetan, izan hauek politikoak, euskararen aldekoak edo sozialak.

Ikusiko da zertan zehazten den praktikan UPNren itun berria, baina EAEkoa ikusita, kolpeak non eta nolakoak izango diren samur aurreikus daiteke. Bistan da, halaber, PSN lotzen jarraitzen duela Sanzek itun berriarekin eta Nafarroa Baik oposizioko indar gisa nabarmentzeko aukera berri bat duela, bere barne arazoei aurre egin eta proiektu politi-

koaren ardatzak argitu eta finkatzen baditu bederen.

**EAE-N** sorgin ehizak aurrera darrai: EHAK-ko bost kideen auziperatzea, Gaztesareari elkartasuna agertzeagatik zazpi herritarrek ETArekiko kolaborazio salaketa jaso dute, festetako arazoak ez dira eten... baina zalantza barik azken hilabeteetan izandako gertaera larrienetakoa da Kontsuelo Agirrebarrena lizartzarri ezarritako lau urteko espetxe zigorra, Regina Otaola Lizartzako PPko alkateari irain egin eta jotzen saiatzeagatik –hala dio Auzitegi Nazionalaren zigorrak–. Jotzea lortu balu zigorren bat mereziko luke Agirrebarrenak. Irainak eta saioengatik, egia balira –berak ukatzen ditu– isunen bat ere bai akaso... baina lau urteko espetxealdia? Proportzio eza erabatekoa da buruan zentzu apur bat duen edonorentzat. Irudika ezina litzateke Cadizen, Bartzelonan, Pisan, Oslon edo Berlinen. Ez da analisi juridiko-politiko gehiegirik behar berriz ere argi ondorioztatzeko euskal lurraldea salbuespen eremua dela Espainian.

**PP eta EAJ** bederen argi azaldu dira Jose Luis Rodriguez Zapaterok Espainian proposatu duen zerga igo-

eraren aurka. Eta normala da, alderdi horiek –PSOerekin batera– izan direlako EAEn eta Espainian azken urteetan izan diren zerga jaitsieren bultzatzaile. 2008an ondarearen zerga ezabatu zen Espainia osoan –Gipuzkoan ezik–, sozietateen zerga beheraka etorri da azken urteetan, eta kapitalaren zergak %18an berdindu dira guztiak. Zapaterok berak gogoratu dio PPri Europako Batasunean Espainia atzenetakoa dela presio fiskalean –EAE eta Nafarroa atzerago daude, Grezia eta Irlandarekin batera azkenak–.

Krisian gastuari eustea logikoa da, familietan ere hori egiten da. Baina diru gehiagoren sarrerari uko zergatik egiten zaion ondo azaldu behar zaie herritarrei, eta zerga igoeren kontrako alderdiek ez dute hori egiten, gehien jota inbertsioetarako eta lehiaketarako ez duela laguntzen argudiatzen dute. Suedia, Frantzia edo Danimarka, adibidez, azken 40 urteetan zertan ari diren galdetu beharko litzateke orduan. Seguruenik, erantzunetakoa litzateke hauek ere atzera doazela presio fiskalean; eta bai, ongizate estatuak atzera egin du European ere, baina presio fiskalean EAE edo Nafarroa baino 10-20 puntu gorago daude oraindik ere.

**ZIO** ● ZIENTZIA ● IRAKURLE ● ORDRENTZAT

Euskal Herriko Unibertsitateko Euskara Zerbitzuak 2003an abiarazitako ekimena da ZIO (Zientzia Irakurle Ordrentzat). Bizkaiko Foru Aldundia eta laguntza eskertzen du urterik urte pasatuz doza ZIO bilduma. Zientziara hurbiltzeko liburu enikargari eta erabilgarriak eskaintz, euskaraz eta jaizntza utzaturik jartzen dira edonoren esku.

gure artean euskaraz

BFA DFB